



KAZETARITZA-EHU III. SARIA EMAN DA GRADU AMAIERAKO LAN ONENARI

“Ulerterraz: Azkar eta erraz. Sareetarako albistegia gazteentzat”

Gazteentzat azkar eta erraz ulertzeko modukoa

Maider Aranguren Garayk kazetaritza ikasketak berriki amaitu dituen ikasleak irabazi du Kazetaritza Gradu Amaierako Lan (GrAL) onenaren III. Kazetariak-EHU saria. Sari hau Kazetarien Euskal Elkarteak eta Elkargoak ematen dute, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearekin lankidetzan.

Saria irabazi duen **“Ulerterraz: Azkar eta erraz. Sareetarako albistegia gazteentzat”** lana, lan on bat da, proposamen bikaina. Kalitatezko berriak eta informazioa gazteei zuzenduta eskaintzen ditu.

Maider Aranguren saridunak, EHUKo Ainara Larrondo irakaslearen gidaritzapean, sare sozialen aro digitalean eta joko-arauen testuinguruan, nola egin diezaiokegun aurre gazteen artean informazio-kontsumo ohituren aldaketa handiari planteatzen du.

“Ulerterraz: Azkar eta erraz. Sareetarako albistegia gazteentzat” proposamen praktikoa da informazioa zuhurtasunez emateko, arduraz lan egiteko, konpromisoarekin eta zerbitzu publikoaren bokazioarekin, belaunaldi berriek informazioa kontsumitzeko erabiltzen dituzten modu eta eran oinarrituta. Hori da gaur egun komunikabideek eta horretan dihardugun profesionalok esku artean daukagun erronka nagusietako bat. **“Ulerterraz”** proiektuak erronka horri erantzun egokia eman nahi dio.

Gradu Amaierako Lan honek ez du edukiak sortzean bakarrik jarri arreta, bestelako oinarri sendo batzuk ere baditu, izan ere, beste komunikabide batzuek jada egindako ibilbidea aztertu eta hortik abiatu baita.

Idea eta edukiak euskaraz sortzea, tokiko komunikabide batean, gazteei zuzenduriko ikus-entzunezko formatuan eta Tik Tok sareko kodeak erabiliz gauzatzea ezaugarri nabarmenak dira eta egungo jokabideei erantzuten diete.

Era berean, aipagarria da Maider Aranguren aurkeztutako ikus-sorkuntza, ez dagoelako soilik Tik Token arauetara egokituta. Irudi eta grafikoen uztarketa, testu idatziak eta telefono mugikorren pantailak eskatzen duen narratiba ere oso modu egokian erabili dira.



Hori guztia dela eta, epaimahaiak, EHUko ordezkariak, Euskal Kazetarien Elkarte eta Elkargoko kideak eta kazetaritza arloko ospe handiko profesionalek osatua, uste du sortutako bideo informatiboak, egindako ikerketa lanak, erabilitako metodologiak, eta aurkeztutako kontakizun eta argudio akademikoak saria merezi dutela, desinformazioari aurre egiteko eta kalitatezko berriak zein balio demokratikoak indartzen laguntzeko duen balioagatik.